



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

**GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUN  
DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI OROKORREN  
IV ERANSKINA.**

**2019-05-14ko GAOko 89. zkian argitaratua**

**OINARRIAK, ARAUAK EZARTZEN DITUZTENAK DIRU LAGUNTZAK EMATEKO  
GENERO BERDINTASUNAREN ARLOAN**

**1.- Xedea**

Oinarri hauen helburua 2019. urtean Ibarra, berdintasun arloan emango diren eta hurrengo diru-laguntzen emakida arautzeko oinarria zehatzak ezartzea da. Deialdi honen bidez, Gizarte Genero Berdintasunaren arloan diharduten irabazi asmorik gabeko talde eta elkarteentzako laguntzak dira; 3.000€ko zenbatekoa du eta ondorengo udal partidatik joango dira: 1.07.231.481.00.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzek, 38/2003ko arazoaren 17ko Diru-laguntzei buruzko Legeak eta garapen araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoaren babesean, jasotako arauak zehaztuko dituzte.

**2.- Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programak**

Diruz lagundu daitezkeen ildo eta programatzat jo daitezke udalerrian garatuko diren emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten jarduerak edo programak, bai eta xede-talde gisa Ibarra herriarrak dituztenak ere, honako modalitateak ezberdintzen direlarik:

- a) Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten jarduerak: Urteko programa.
- b) Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten jarduerak: Jarduera zehatzak.

Diruz lagundutako gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epeen barruan egiten direnak.

Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua aurrera eramateko lege- edo finantza-aholkularitza gastuak, notario-gastuak eta peritu-gastuak diruz lagundu daitezke baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin harreman zuzena badute eta berorren prestakuntza edo gauzatze egokirako ezinbestekoak badira.

Diru-laguntzaren onuradun den elkarteak edo pertsonak jardueraren antolakuntzak dakartzan ardurak beregain hartuko ditu, aipatu jarduera bermatzen duten dagozkion aseguru-polizak itunduz.

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidak ez dakar berarekin udalaren eta

diru-laguntzaren onuradun den pertsona edo elkartearen artean inolako izaera zibileko, lan izaerako, administrazio izaerako edo bestelako izaerako kontratu-harremanik.

### **3.- Balorazio irizpideak**

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren eskaerak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

- a) Programa edo jardueraren helburuak eta edukiak eraginkorrak izatea emakumeen eskubideen defentsarako, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta/edo indarkeria sexista ekiditeko: gehienez 40 puntu.
- a) Elementu berritzaileak, teknologia berrien erabilera eta jarduera zabaltzeko baliabideak, ibartarren partaidetza sustatze aldera: gehienez 15 puntu.
- a) Proiektuan onura izango duten Ibarrako pertsona kopurua: gehienez 5 puntu.
- a) Emakume atzerritarrei, zailtasun bereziak dituztenei, indarkeria edo diskriminazioaren bat jasaten dutenei laguntza eta babes eskaintzea: gehienez 10 puntu.
- a) Ibarrako emakumeen premiei erantzuteko jarduera berria izatea: gehienez 10 puntu.
  - Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzera edo/eta indarkeria sexista ekiditea zuzendutako politiken edo jardueren garapenean egindako ibilbidea: gehienez 10 puntu.
  - Proiektua eta bere jarduerak garatzean euskararen erabilera bermatzea. (gehienez 10 puntu).

### **4.- Prozeduraren instrukzioa.**

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukziorako eskuduna GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA departamentu burua izango da.

Alkatea edo zinegotzi delegatua izango dira eskudun.

### **5.- Ebazpena**

Prozedura hori erabakitzeko eskumena izango duen organoa Alkatea edo zinegotzi delegatua izango dira. Epea sei hilabetekoa izango da.

Gehienezko epe hori igarota, eta ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak ezetsizat joko du bere diru-laguntza eskaera, Ibarrako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 43 art.an aurreikusitakoaren arabera, eskaerak ezetsi egingo dira eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabetera ebazpenik eman ez bada.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkiderenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, diru laguntzei buruzko ebazpena

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Horrela jasotzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 123 eta 124 art.etan. Bestela, Administrazio-auzietako errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Edonola ere, berraztertze errekurtsoa jartzea aukeratuz gero, ezingo da administrazio-auzietakoa aurkeztu hura berariaz ebatzi arte edo isiltasunez ezetsi arte. Hori guztia egoki iritzitako bestelako errekurtsoa aurkeztea baztertu gabe.

Ibarra, 2019ko maiatzaren 22a

GIZARTE POLITIKAK, POLITIKA FEMINISTA, ANIZTASUNA saileko zinegotzi delegatua

Itziar Arratibel Imaz